JOLAS-TXOKO BAT BARAKALDOKO "MIRANDA" HERRI IKASTOLAN

En el curso 81-82, el Area de Juventud de Barakaldo ofreció a todos los centros públicos, la posibilidad de montar "Rincones de Juego" como alternativa al tiempo libre y durante las horas extraescolares.

Esta idea, fue muy bien acogida por la comisión de A.P.A. y después de conocer las escasas experiencias que había en la Comunidad Autónoma y algunas otras de Cataluña, se decidió montar el Rincón del Juego en la ikastola pública Miranda.

Los padres de dicha comisión se encargaron de gestionarlo directamente, en colaboración con un Monitor de tiempo libre.

Sin embargo el proyecto no ha estado exento de problemas (problemas de falta de espacio, económicos...) que han motivado la imposibilidad de repartir el espacio por rincones (el rincón de la casa, rincón del disfraz, etc.) y la limitación de funcionamiento a solo dos días a la semana: viernes y sábado.

Por fin nace el "Rincon del Juego", espacio donde el juguete es el principal componente; donde los niños se pueden encontrar con sus compañeros; donde se facilita el desarrollo de la imaginación y el espíritu lúdico. Cumple también una función social, pues muchos juguetes, por su elevado coste, no pueden llegar a manos de muchas familias y en este sentido, el rincón del juego ofrece las mismas facilidades a todos.

Además, durante el curso pasado, se desarrollaron, entre otras, actividades como: preparación de los carnavales, talleres de juguetes, cine, formación de un grupo de títeres, montaje audiovisual, campaña de reciclaje de papel, educación vial,...

Experiencia, que si se analiza, vemos que ofrece al Centro, muchas posibilidades de apertura al entorno, si en sus actividades programa iniciativas de Tiempo libre.

RINCON DEL JUEGO EN LA IKASTOLA MIRANDA

1981-82 ikasturtean Barakaldoko Gazteri Arloak "Jolas-Txokoak" eratzeko aukera eskaini zien herri ikastetxe guztiei. Ikasleen Guraso Elkarteko Batzordeak, gaia aztertu ondoren, beran lantzeari ekin zion. "Ludotekak: jolas--txokoak" izeneko aldizkaria eratuz hasi zen.

Hurrengo ikasturtean, I.G.E.ko Batzordearen Komisio batek gaia lantzeari ekin zion eta Autonomi Elkartean era honetako esperientzia gutxi eta bakarrak zeudela ikusi zuten. Ortuellan "Marcelino Ugalde" Ikastetxea, Barakaldon "Miguel de Unamuno"ikastetxea, Derion, "De-

rio" Herri Ikastetxea... Beste zenbait kasutan garai jakin baterako eratu zuten taldeak. Euskal Herritik kanpora jo behar izan zen. Esate baterako, Catalunyara, han urteak bait daramatzate era honetako esperientziekin. Emaitzak ezin hobeak zirela ohartu ziren hezkuntzaren ikuspuntutik: haurrek jolas egiten, elkar errespetatzen, elkarbizitzen... ikasten zuten.

Informazio-jasotze garai honen ondoren, zera erabaki zen: Ikastolako haurrentzako oso baliagarri izango zela Jolas-txokoa antolatzea.

Barakaldoko bigarrena izango zen. Oso planteamendu serioa egin zen: komisio horretako gurasoek beraiek eramango zuten zuzen-zuzenean bere gestioa. Astialdirako alternatiba berria zen, ikastetxe gehienetan burutzen diren ekintzetatik apartekoa, ia denetan deportearen ingurukoak izaten bait dira. Horregatik, Monitore espezialista baten laguntza eskatu zen. Txokoko animatzaile-taldea, beraz, bi gurasok eta monitoreak osatzen zuten, eta hirurak izango ziren proiektua aurrera eramateko arduradunak.

Proiektuaren garrantziaz jabeturik, taldeko gurasoek ikasteari ekin zioten, zenbait ikastaro eginez: gizarte-kultur aminazioa, mozorroak, erraldoiak, buruhandiak...

ARAZOAK, ARAZOAK, ARAZOAK

Hala ere proiektuak ez du arazo faltarik izan eta bertan aipatzen ditugu:

- –Astean hiru egunetarako pentsatua zen proiektua, Ostiral eta Larunbatetara mugatu behar izan zen, lokala ez bait zegoen libre beste egunetan.
- –Aukeran zegoen lokal bakarrak, Gimnasioak, ez zuen txokoa egiteko baldintza egokirik betetzen, baina ez zegoen bera baino hoberik ikastetxe osoan.
- –Barakaldoko Udalak ordaindu zuen kostuaren % 50a. Beste erakundeetatik inongo laguntzarik ez zen lortu ahal izan.
- –Jostailu etxeek ez zuten arretaz entzutea beste laguntzarik eman.
- –Ohizko zozketa egin behar izan zen diru piska bat ateratzeko.
- –Ez zegoen altzari egokirik, ez jostailuak gordetzeko ez ekintza aurrera eramateko.

Dena dela, arazo hauetariko batzuk konpontzen joan ziren: gainerako gurasoek proiektuarekin bat egiten hasi ziren; Gazteri Arloak armairu bat egiteko zura jarri zuen; bien bitartean Ikastetxeko gela blindatua erabili ahal izan zen materiala gordetzeko.

AZKENIK, "JOLAS-TXOKOA"

Jolas-txokoko osagarri nagusia jostailua izan da. Bertan haurrek elkarrekin jolas egin zezaketen, ordurarte jolas egin gabeko-lagunekin ere bai; irudimena eta izpiritu ludikoa garatzea errazten zen.

Txokoa dela medio haur asko beste lagun batzuengana ireki zen, komunikazio hobea lortuz.

Zenbait kasutan haurren eta helduen arteko harremanak, gurasoen eta seme-alaben arteko ak hobetu egin ziren, askotan gurasoek beraiek bait ziren halako jostailu batekin nola jolastu erakusten zietenak.

Gizarte funtzio bat betetzen zen. Jostailu asko, beren prezioagatik, ez bait ziren familia anitzentzat eskuragarri, eta, zentzu honetan, jolas-txokoak aukera berdinak eskaini zizkien guztiei.

Sustatzaileen gogorik handiena, eta agian zapuzketarik handiena espazioa txokotan banatzea izan zen: etxearen txokoa, mozorroaren txokoa, supermerkatuaren txokoa... Toki eskasiak asko mugatu zuen banaketa hau, nahiz eta oraindik gogoan dagoen txokoa leku finko eta egonkor batean kokatzen denerako. Ikastola berria eraikitzean lortzeko itxaropena dago.

Txokoaren bidez zenbait ekintza eraman zen aurrera, guztiak bertan nagusi den izpiritu ludikoarekin.

Animatzaile-taldea astero biltzen da txokoaren martxa ebaluatu eta ekintza berriak proiektatzeko.

JOSTAILUAK NOLA ESKURATU

Txokoa martxan egon den garaian behin baino gehiagotan erosi dira jostailuak.

Lehen aldian, joango ziren haurren adinetan pentsatuz erosi ziren, puzzle erraldoiak adibidez, ume txikiak izango bait ziren, mahai jokoak, eraikuntzak... beti ere aldiko ume batek baino gehiagok erabiltzeko modukoak. Zenbaitetan haurrek eskatzen zituzten jostailuak erosi ziren. Antolatzaileen gogoz kontra zenbait jostailu elektroniko erosi ziren eta haurren aldetik harrera izugarria izan zuten, behar bada nobedadeagatik edo, oso garestiak izanik, ume guztiek etxean ez zeuzkatelako. Haurren artean gehien gustatu zitzaizkien jostailuez egindako galdekizun batean, gehienek elektronikoen aldetik jotzen zuten eta, gainera, txokoan egotea gustatuko litzaizkiekeenak ere era horretakoak ziren.

Hala ere, eta antolatzaileen ustez aukeratutako jostailu elektronikoekin, burulana eta eskuhartzea e.a. sustatzen dutenekin jolas egitea ona bada ere, merkatua inbaditzen ari direnez gero, garrantzi handikoa da umeek betiko jostailuekin jolas egitea; hori dela eta, toki bat jostailu klasikoentzat gorde zen, pita, boloak, iturri-pista e.a.

EKINTZAK

Joan den ikasturtean honako ekintza hauek burutu ziren, besteren artean:

1. Ihauteriak prestatu.

Umeek beraiek egin zituzten beren mozorroak, egun horietarako erraldoiak eta buruhandiak egin ziren.

2. Jostailugintza:

–Kometak
–Banderatxoak, txanoak e.a.
–Txotxongiloak
–Txirinboloak

3. Zinema.

4. "Tximeleta" txotxongilo taldea eratu zen.

5. Jaiak prestatu.

6. Ikusentzunezko Muntaia.

7. Paperaren birziklairako kanpaina.

8. Hezitzaileentzat txotxongilo-eraikuntza eta erabilerari buruzko ikastaroak antolatu.

9. Bide heziketa.

LABURBILDUZ

1984-85 ikasturteko esperientzia txiki honen ondoren, oso balorazio positiboa egin da, antolatzaileek aurkitu dituzten zailtasunak, batez ere ekonomikoak, kontuan harturik. Dena "etxean" egin da, gurasoek ordu asko sartuz, baina guztia ondo ateratzeko ilusioz. Datozen Kurtsoetan esperientziak aurrera egingo duenaren itxaropena dugu, eta diru baliabide gehiagorekin.

Gure ustez ikastetxe batek ingurura irekitzeko aukera paregabeak eskaintzen ditu, bere ekintzen artean astialdiko ekimenak programatzen baditu.

Funtzionamendu erak aukera berriak eskaintzen ditu Eskola eta gurasoen arteko elkarlana bideratzeko, Ikasleen Gurasoen Elkartearen bidez.

RAFAEL MENDIA.

FICHA INDIVIDUAL

NOMBRE _____

EDAD: _ CURSO: _

1º.– ¿Cuántas veces has venido al Rincón del Juego?
Una _____ Más de una _____

2º.– ¿Cuál es el juguete que más te ha gustado?
_____

3º.– De las actividades que hemos realizado, ¿cuál es la que más te ha gustado?

Cometas _____
Marionetas _____
Cine _____
Carnavales _____
Banderas y sombreros _____
Txirimbolos _____

4º.– ¿Qué juguetes te gustaría que hubiera en el Rincón de Juego?
_____

5º.– ¿Qué actividades te gustaría que hubiera en el Rincón?
_____

6º.– ¿Te gustaría que el Rincón del Juego se abriese durante más días?
Sí _____ No _____

FICHA PEDAGOGICA DEL JUGUETE

FICHA PJ N.º	NOMBRE DEL JUGUETE:	Fabricante Licenciatario:	GRUPO:

ASPECTO MATERIAL

	Insuficiente	Regular	Bueno	Muy Bueno
1. Forma, belleza de				
2. Colores, armonía de				
3. Material, calidad de				
4. Construcción y acabado				
5. Manipulación				
6. Limpieza				
7. Seguridad y funcionamiento				
8. Garantía fabricante				
9. Normas de seguridad				
10. Resistencia				

EMBALAJE E INSTRUCCIONES

	Insuficiente	Regular	Bueno	Muy Bueno
1. Consistencia emb. exterior				
2. Consistencia emb. interior				
3. Visibilidad ext. piezas				
4. Ordenación inte. piezas				
5. Información sobre el juego				
6. Comprensión instrucciones				
7. Comprensión dibujos				
8. Núm. de juegos que presenta				

ASPECTO PEDAGOGICO

	Nulo	Regular	Bueno	Muy Bueno
1. Dif. de forma y colores				
2. Motrici. fina o hab. manual				
3. Motricidad global				
4. Aumento vocabulario				
5. Expresión oral				
6. Otros tipos de expresión				
7. Cálculos núms. y canti.				
8. Memorización				
9. Concentración				
10. Conocimientos generales				
11. Pensamiento lógico				
12. Pensamiento crítico				
13. Pensam. táctico y estrat.				
14. Creatividad				
15. Afectividad				
16. Imitación mundo adultos				
17. Colaboración				
18. Contacto humano				
19. Competitividad				
20 Otros conceptos				

DATOS COMPLEMENTARIOS

¿Necesita presencia adultos Sí ☐ No ☐ Conveniente ☐	¿Afecta pérdida de una pieza? Nada ☐ Bastante ☐ Poco ☐ Inutiliza ☐	¿Hay accesorios? Sí ☐ No ☐ Muchos ☐	Un jugador ☐ Varios ☐ ¿Cuántos.....	Niño ☐ Niña ☐ Indiferente ☐	Interior ☐ Exterior ☐ Indiferente ☐	Edad Recomendada